



# ARRAZTALO

2021eko memoria

2022ko urtarilaren 5a

# AURKIBIDEA

<b><u>1</u></b>	<b><u>SARRERA</u></b>	<b><u>4</u></b>
<b><u>2</u></b>	<b><u>2021 URTEKO EKINTZEN AZALPENA</u></b>	<b><u>4</u></b>
<b>2.1</b>	<b>LAN ETA GIZARTE INTEGRAZIOA BARATZETAN</b>	<b>4</b>
2.1.1	HELBURU OROKORRAK	4
2.1.2	2021EKO IBILBIDEA	4
<b>2.2</b>	<b>ENPLEGU ZENTRO BEREZIA (EZB)</b>	<b>6</b>
2.2.1	HELBURU OROKORRAK	6
2.2.2	2021ERAKO HELBURUAK	6
2.2.3	2021KO IBILBIDEA	6
<b>2.3</b>	<b>BARATZAK ETA KONTSUMO TALDEA</b>	<b>6</b>
2.3.1	HELBURU OROKORRAK	6
2.3.2	2021EKO HELBURUAK	7
2.3.3	2021KO IBILBIDEA	7
<b>2.4</b>	<b>IKASTETXEAK ETA BARATZETARA BISITAK</b>	<b>9</b>
2.4.1	HELBURU OROKORRAK	9
2.4.2	2021ERAKO HELBURUAK	9
2.4.3	2021EKO IBILBIDEA	10
<b>2.5</b>	<b>ALDURAREKIN ELKARLANA</b>	<b>10</b>
2.5.1	HELBURU OROKORRAK	10
2.5.2	2021EKO IBILBIDEA	10
<b><u>3</u></b>	<b><u>DIRULAGUNTZAK</u></b>	<b><u>10</u></b>
<b><u>4</u></b>	<b><u>DIRU-KONTUAK</u></b>	<b><u>12</u></b>
<b>4.1</b>	<b>BALANTZEA</b>	<b>12</b>
<b>4.2</b>	<b>GASTUEN ORDAINAGIRIEN ZERRENDA</b>	<b>13</b>

4.2.1	GIZA BALIABIDEAK (SOLDATAK, GIZARTE SEGURANTZA ETA JOAN-ETORRIAK)	13
4.2.2	KANPOKO ZERBITZUAK (ASEGURUAK ETA ZERBITZU PROFESIONALAK)	14
4.2.3	HORNIDURAK (LOKALEN GASTUAK ETA BARATZA MATERIALA)	15
4.2.4	ZERGAK ETA FINANTZA GASTUAK	19
4.2.5	BESTE GASTUAK	20
4.2.6	INBERTSIOAK	20

# 1 SARRERA

Txosten honetan Arraztalo Elkarteak 2021ean egin dituen ekintzen laburpena biltzen da. Urte hasierako helburuak, egindako lanak eta horien emaitzak zehazten dira. Gainera, diru-kontuen azalpen zehatza ematen da.

## 2 2021 URTEKO EKINTZEN AZALPENA

### 2.1 Lan eta gizarte integrazioa baratzetan

#### 2.1.1 Helburu orokorrak

- Helburu nagusia, Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.
- Lan integrazioa bultzatzeko nekazaritza ekologikoan lanpostuak sortzea.
- Gaixotasuna duten pertonekin, senideekin, gizarte zerbitzuekin eta osasun arretako profesionalekin euren egoera egonkortzen eta hobetzen laguntzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen eta herritarren arteko harremanak bultzatzea eta sendotzea.

#### 2.1.2 2021eko ibilbidea

##### **Lantalde egonkorra**

Lantalde egonkorrean gaur egun buruko gaixotasuna duten lau pertsona ari dira lanean. 3 finkoak eta bat berria. Azken hau, 2021 urtearen hasieran eszedentzia hartu zuen langilearen ordez sartu zen.

2020ko txostenean azaldu zen moduan, langile bat 2020an zehar bajaran denbora luzez egon zen eta azkenean eszedentzia hartzea erabaki zuen. 2022 hasieran eszedentzia epea amaitzen zaionez, lanpostuarekin zer egin erabaki behar du. Senideek elkarteari adierazi diotenez, ez da lanera itzuliko eta behin betiko baja hartuko du. Lanpostu hori betetzeko, Oiartzungo beste langile bat kontratatu zen 2021eko apirilean.

Bestalde, beste langile bat erretiroko adinera iristen ari da. Langileak berak zailtasunak dituela adierazi du baratzetako lan fisikoa egiteko. Hau dela eta senideak eta Arraztalo etorkizuneko aukerak aztertzen ari dira: erretiroa eta errelebo kontratuak besteak beste.

Horrez gain, 2021ean hausnarketa prozesu bat ireki da desgaitasuna duten langileek behar duten arretaren inguruan. Elkarteko partaide guztiok ikusten dugu langileen gizarte alorreko beharrak asetzeko laguntza baten beharra dagoela. Egunerokoan sortzen diren oztopoak gainditzeko gizarte esku-hartzeko zerbitzu baten beharra dagoela ikusten da. Aurrez egin izan dira saiakerak zerbitzu horrek nolakoa izan beharko lukeen argitzeko, baina ez dute

emaitza argirik utzi. Enplegu Zentro Bereziaren kalifikazioa lortzeak, gizarte hezkuntzako profila duen pertsona edo zerbitzu bat kontratatzeke konpromisoa hartzera behartuko gaitu. Beraz 2022an kalifikazioa lortzeko eta esku hartzeko pertsona edo zerbitzu bat kontratatzeke ahalegina egingo da.

### **Lanbideren Enplegu Plana**

2021 urteko lehenengo sei hilabetetan, Lanbideren 2020 urteko Enplegu Planeko langileak izan ziren lanean Arraztaloren ustiattegian. Lantalde finkoarekin batera aritu ziren lanean 4 kontratazio berriak.

Pertsona hauen hautaketan, Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroak lidergoa hartu zuen, senideekin eta erabiltzaileekin elkarrizketak eginez eta hautagaiak proposatuz. Guztira, lau pertsona kontratatu dira, 22 eta 46 urte arteko gizonezkoak, hain zuzen ere. Hiru Osasun Mentaleko Zentroak proposatutakoak eta bat Arraztaloren lan poltsatik hartutakoa.

Langileen kontratazioa 2020ko abenduan gauzatu zen eta 2021eko urtarrilean zehar formazio jardueretan parte hartu zuten. Horretarako, Arraztalo Elkarteko baratzatan lanean hasi ziren, dagoeneko martxan zegoen lantalde batean integraturik. Lantaldearen arduradunak, pertsona bakoitzaren profila aztertu eta beharrezko formakuntza eta egokitzapen ekintzak gauzatu zituen, langileen egokitzapena ziurtatzeko. Besteak beste, nekazaritza tresnerian formakuntza, baratza lanen kudeaketan formakuntza eta lan arriskuen prebentzioan formakuntza jaso zituzten. Formazio fase honetan, langile bakoitzaren esperientzia eta gaitasunak aztertu dira, ustiapenean dauden ataza ezberdinetatik bakoitzari hobekien egokitzen zaizkionak aukeratzeko. Esate baterako, langileetako baten soldatzaile esperientzia baliatu da, negutegietan egin beharreko konponketak egiteko. Beste langile baten informatika esperientzia baliatuz, hilabeteroko fakturazioaren eta ekoizpenaren jarraipena digitalizatu da.

2021eko otsailetik 2021eko ekainera, kontratatu berriak Arraztaloko lantaldean integraturik egon dira, nekazaritza lanetan, lanaldi arrunteko fasean. Hilabete hauetan, langileekin eta senideekin egoeraren jarraipena egin da, beharrezkoa izan den kasuetan lan jarduerak egokituz, bai lan motari dagokionean, lantaldeari dagokionean edo ordutegiei dagokionean. Arraztalok lantalde honen inguruko balorazio oso positiboa egin du, jarrerari eta egunerokoan lortutako emaitzei dagokionean. Gainera, pertsona hauen aktibazioa lortu da, besteak beste:

- Langile bat Lanbideko formakuntza ikastaroetara bideratu da.
- Beste langile bat Gureak enpresako hautaketa prozesu batean sartu da.

Bien bitartean, 2021eko Enplegu Planaren tramitazioa martxan jarri da. Lau lanpostu sortzeko eskaera egin zitzaion Lanbideri, Oarsoaldea Garapen Agentziaren bitartez. Aurten

ere Gizarte Zerbitzuekin eta Osasun Mentaleko Zentroarekin izandako koordinazioari esker, hautaketa prozesua modu egokian gauzatu da. Arraztalok bere kabuz uztailean lan poltsa ireki zuen eta horrez gain, Gizarte Zerbitzuek eta Osasun Mentaleko Zentroak bere hautagaiak proposatu dituzte. 6 bat hautagaitza bildu dira guztira eta horietatik 4 aukeratu dira (Pasaiako 2, Errenteriako 1 eta Oiartzungo 1). Abendua bukaeran kontratuak egin dira eta urtarrilean hasiko dira lantalde finkoarekin batera lanean.

## 2.2 Enplegu Zentro Berezia (EZB)

### 2.2.1 Helburu orokorrak

- Arraztaloren lan integrazio proiektua egonkortzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren bitartez beste erakundeak inplikatzea.

### 2.2.2 2021erako helburuak

- Enplegu Zentro Bereziak partaide diren erakundeentzako zein helburu bete behar dituen zehaztea.
- Inguruko erakundeekin Enplegu Zentro Berezia lortzeko proposamena lantzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren forma juridikoa zein izango den erabakitzea
- Plan ekonomiko finantzieroa egitea.
- Enplegu Zentro Berezia martxan jartzea.

### 2.2.3 2021ko ibilbidea

Enplegu Zentro Bereziari dagokionean, honen kalifikazioa lortzeko aurrez tramite ezberdinak egin behar dira. Gaur egun, bi lan nagusi daude martxan:

- Jarduera baimena lortzea. Abelurren aholkularitzarekin jarduera baimenaren txostena egin da eta Oiartzungo Udalean aurkeztu da. Tramitazio prozesuan dago.
- Bideragarrietasun ekonomikoaren plana egitea. Aholkulari baten laguntzaz bideragarritasun planaren txostena osatu da eta Lanbiderekin azkeneko zalantza batzuk argitzeke daude.

Behin dokumentazio guztia osatzen denean, eskualdeko erakundeei landutako proposamena aurkeztuko zaie.

## 2.3 Baratzak eta kontsumo taldea

### 2.3.1 Helburu orokorrak

- Bertakoak, ekologikoak eta sasoiari-erakundeak diren barazkiak eta sagardoa merkaturatzea.

- Gaixotasun psikiko duten pertsonen gizarte integrazioan lagunduko duen herritar talde baten konpromezua lortzea.
- Inguruko ekoizleak kontsumo taldera erakartzea.

### 2.3.2 2021eko helburuak

2021erako honako helburuak zehaztu dira:

- Kontsumo taldea sendotzen jarraitzea. Komunikazio kanpainak egiten jarraitu, kide berriak erakartzeko.
- Labore denda eta Ikastolako sukaldea hornitzeko barazkien ekoizpena ugaritzea.
- Inguruko denda txikiak hornitzen jarraitzea. Orain arte modu puntualean egiten da. Aurrera begira denda txikiak iraunkortasunez hornitzea izango litzateke helburua.
- Intxaurrondon ireki berri duten Labore antzeko dendarekin ere harremanetan jarriak gara. Bertako hornitzaile izateko pausoak eman.

### 2.3.3 2021ko ibilbidea

#### **Baratzak**

2021ean Arraztalok lau baratza (19000 m<sup>2</sup>) eta bi sagasti (12000 m<sup>2</sup>) kudeatzen jarritzen du. 2021ean baratzatan hobekuntzak egiten jarraitu dugu. Besteak beste, Oarsoaldeatik eskatuta negutegi berri bat jarri da Makutsoko lursailean. Lursail honetan, Arraztaloren eremuan, Oarsoaldeako Ereiten programako pertsonak ere aritzen dira lanean. Beraien jarduera aurrera eraman ahal izateko, lehendik Arraztaloren azpiegitura erabiltzen zuten, besteak beste txabola eta negutegia. Azpiegitura horietan gero eta leku gutxiago zegoela ikusirik, Oarsoaldeatik Arraztalori negutegi berri bat, konpostagailu bat eta hazitegi bat jartzeko eskaera egin zion. Hori erosi ahal izateko, Oarsoaldeak 3000 €-ko dirulaguntza eman dio Arraztalori.



### Kontsumo taldea

Kontsumo taldeari dagokionean, 2021ean partaide kopurua mantentzea lortu da (guztira 28). Nahiz eta urte hasieran baja batzuk izan, ondoren egindako kanpainei esker partaide berriak lortu dira. Besteak beste, honako ekintzak gauzatu dira kide berriak lortzeko:

- Etxez etxe eta enpresetan eskuorrien banaketa.

**ARRAZTALO KONTSUMO TALDEA**

Etia gainera, enpresetara zerbitzu berria!  
3 pertsonako taldea osatuz gero, barazki saskia lanegira eramango dizugu.

Oiartzungo sasoiari sasoiko barazki ekologikoak

Asteroko saskia hilean 50€

Gaixotasun mentala duten pertsonen laguntza ari zara

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**

Grupo de consumo ARRAZTALO ¡HAZTE SOCIO!  
Cesta semanal de verduras ecológicas por 50€ al mes

arraztalo@gmail.com 617595724

- Email bidezko kanpainak.
- Ikastetxeen bidezko kanpainak.

### Beste bezeroak

Arraztaloren bezero nagusiak kontsumo taldeko kideak diren arren, azkeneko urtetan merkataritza txikian eta herriko ikastetxeen jantokietan hornitzaile izateko ahalegina egin da. 2021ean bezerorik garrantzitsuenak Hautzaro Ikastolako jantokia eta Labore dira. Azken honekin lanketa berezia egiten ari gara, uztak egokituz eta beraiengandik gertuago egonez.



Gainera, HemenGuk ekimenaren baitan antolatu diren azokatan parte hartu dugu eta gure produktuak zein kontsumo taldea bistaratzeko aukera izan da. Honekin guztiarekin, 2021ean Kontsumo Taldeaz aparte egindako salmentak % 50 igo dira.

Gainera, bezero berriak bilatzeko bi egitasmo berri jarri dira martxan:

- Inguruko enpresetara salmenta zerbitzua jarri nahi da martxan. Kontsumo Taldearekin egiten den moduan, saskiak saltzen jarraitu nahi dugu, baina zuzenean pertsonen lanpostura eramanez. Inguruan enpresa asko daude eta bertan Oiarzungoak ez diren langileak ere badaude. Horiengana iristeko, enpresetan taldeak osatu eta banaketa bereziak antolatu nahi ditugu.
- Eroskiren Internet bidezko salmenta. Eroskik bere online dendan, bertako ekoizleen produktuak sartzeko txokoa irekiko du. Bertan parte hartzeko hitzarmena sinatu da eta 2022ko martxoan salmentarekin hastea aurreikusten da.

Egitasmo honez gain, inguruko herrietako merkatuetan salmenta postuak jartzea aztertzen ari gara. Badaude hau kudeatzeko prest dauden langileak eta elkartearantz onuragarria izatez gain, langileen garapen pertsonalerako ere aukera bat izan daitekeela ikusten da.

## 2.4 Ikastetxeak eta baratzetara bisitak

### 2.4.1 Helburu orokorrak

- Herriko haurren sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasunen eta buruko osasunari dagokionean.
- Arraztalo Elkartearen ekintzen berri ematea, baratzetan egiten den lana laburbilduz.
- Herriko haurrak nekazaritzara hurbiltzea.

### 2.4.2 2021erako helburuak

2021erako helburuak honakoak dira:

- Haurtzaro Ikastolak martxan jarri nahi duen proiektuan laguntzea.
- Elizaldeko eta Haurtzaroko ikasleak baratzetara joaten direnerako, irakasleekin bisitak landu Arraztalo elkarteak burutzen duen lana azalduz. Horretarako irakasleei Arraztaloko langileek egiten duten lana azaldu behar zaie. Langilearen egunerokotasuna, langilearen prozesua, dituzten zailtasunak, izaten dituzten aurrerapenak eta abar.

### 2.4.3 2021eko ibilbidea

2021eko lehen seihilekoan, Arraztaloren baratzatan ohiko bisitak izan dira. Batetik Haurtzaro Ikastolako HHko ikasleak eta bestetik udalekuetakoak. Bisita hauetan ohiko lanketa egin da: ikasleak taldetan antolatu eta Arraztaloko langileekin baratza lanak egin.

## 2.5 Aldurarekin elkarlana

### 2.5.1 Helburu orokorrak

- Eskualdean, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen aldeko mugimendua bultzatzea.
- Eskualdeko mailako egitasmoak gauzatzea, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen alde.

### 2.5.2 2021eko ibilbidea

2021ean Aldurarekin batera martxan jarri den egitasmo nagusia Osasun Mentaleko Mahaiaren diseinua da. Horretarako, Aldurak lortutako dirulaguntza bati esker, eskualdeko mahaiaren diseinu proposamena landu da SIIS ikerketa zentroarekin batera. Proposamena bukatzen denean eskualdeko erakundeei aurkeztuko zaie.

## 3 DIRULAGUNTZAK

Jarraian, Arraztalok aurrean eskatu edo lortu dituen dirulaguntzen laburpena ikus daiteke:

Diru-laguntza	Kopurua	Helburua	Onartua	Oharra
Oiartzungo Udala	53.000€	Lan integrazioa baratzetan	Bai	Hitzarmen bidezko dirulaguntza.
Kutxa Fundazioa	13.400€	Lan integrazio programan laguntzeko	Bai	2020an baino 5000 € gutxiago
Foru Aldundia	3.019 €	Nekazaritza ekologikoaren laguntzak, 2020ko deialdia	Bai	
Foru Aldundia	7.466 €	Baratzetako integrazio programari laguntzeko	Bai	

Lanbide/Errenteriako Udala	24.355,16 €	Enplegu Plana 2020	Bai	Desgaitasuna duten 4 langileren kontratazioa
Oarsoaldea	3.000 €	Ereiten Programarentzat Arraztaloren lursailetan azpiegitura moldatzeko	Bai	
CaixaBank	4.000 €	Baratza materiala	Bai	Oiartzungo bulegoa

## 4 DIRU-KONTUAK

### 4.1 Balantzea

2021 SARRERAK	
<b>Salmentak</b>	
Kontsumo Taldea	18.003,91 €
Merkataritza	12.368,78 €
<b>Dirulaguntzak</b>	
Udala	53.000,00 €
Foru Aldundia	10.485,00 €
Eusko Jaurlaritza	0,00 €
Bankuak	18.600,00 €
<b>Maileguak</b>	
Maileguak	0,00 €
<b>Beste</b>	
Beste	28.148,53 €
<b>Guztira</b>	<b>140.606,22 €</b>

2021 GASTUAK	
<b>Giza Baliabideak</b>	
Ordainduak	81.461,95 €
Gizarte Segurantzak	33.589,94 €
Joan-etorriak	256,02 €
<b>Kanpoko zerbitzuak</b>	
Aseguruak	1.729,64 €
Zerbitzu profesionalak	2.852,29 €
<b>Hornidurak</b>	
Baratza materialak	5.123,65 €
Landare eta haziak	3.215,04 €
Erregaia	2.857,72 €
Argindarra	59,26
Ura	186,79 €
Hondakinak	202,34 €
<b>Amortizazioa, zergak eta finantza gastuak</b>	
Amortizazioak	0,00 €
Zergak	4.849,81 €
Finantza gastuak	94,56 €
<b>Beste</b>	
Beste gastuak	888,01 €
<b>Inbertsioak</b>	<b>3.060,57 €</b>
<b>Guztira</b>	<b>140.427,59 €</b>

BALANTZEA	
2021-01-01	12.372,08 €
Balantzea	178,63 €
2021-12-31	12.550,71 €